

## DEUSTUKO POSTGRADUKO ITZULPEN MASTERRAREN INGURUAN HAUSNARTZEN

Azken hamar urteetatik hona perretxikoak beste ugaldu dira masterrak nonahi eta edozeren gainean. Jakintza arlo horietarik bat, honela izendatu ahal izatera, itzulpengintza dugu.

Arestian, Senez aldizkariaren 8. urtealdiari dagokion 1992.eko 1. zenbakian, bi artikulurik ageri dira Gasteizko eta Deustuko masterraren berri ematen. Artikulu bi horietan ikasplangintzari begiratzen zaie. Horrek badu garrantzia, jakina! Hala ere, artikuluska honetan beste alderdi bati behatu nahi diot: master hauek lanbidearekin duten loturari, alegia.

Aipatu berri ditudan bi artikuluetarik batean, Deustukoari buruzkoan, «Kanpo praktikak» izenpeko atala da, nire aburuz, ikasleen lanbide interesen aldetik garrantzirik nagusiena duena.

Egia da hezkuntza teorikoak berebiziko garrantzia duela. Egia da hezkuntza sendorik gabeko itzultzaile asko eta asko ari direla gaur egun itzulpenak(?) egiten. Egia da hori zelan edo halan konpondu behar dela. Dena dela, lana benetan egiten den lekuan gauzak nondik nora doazen jakin barik herren gelditzen da hezkuntza teoriko hori.

Bestalde, ikasleen interesei begiratu behar zaie, zeren ez dezagun ahantz horrelako master batek milioi erditik gorako kostua duela.

*Urrinagora* eroan gaitzakeen arazo bat alde batera lagata, itaun bat egin behar diogu geure buruari: zein da master baten eginkizuna?: dirua biltzeko beste tresna bat izatea?, zenbaiten «curriculum vitae»a mardultzea?, kaleak eta enplegu bulegoak karreradunez ez betetzea?, ala hezkuntza eta lanbidea uztertzea?

Aipa dezadan beste barik zein den artikuluko honen helburua: lehenengo eta bat, master bateko praktikek zelan lagun diezaieketen ikasleei lanbideari begira; gero, Deustuko masterrak honetan lortu dituen emaitzetarik batzuk azertu.

### **1. Ikasgelako ikuspegia eta behartokikoa.**

Eskolak eman ditudan ginoan, hur-hurretik berba egin dezaket alderdi honen gainean eta, beraz, esan dezaket, okertzeko beldur handi barik, ikuspegi biak ez datozela itzuli behar diren testuen izaeratik, gehienak baitira berdintsuak toki batean eta bestean. Esaterako, nik ikasleei agindu dizkiedan testuak beharrean itzuli behar izan ditudanak izan dira eta, alde horretatik, ez dago bereiztasunik.

Bereiztasuna beste toki batzuetatik dator. Lehenengo bereiztailea eskola-giro eta behar-giroaren arteko ezberdintasuna da. Eskola-giroa erabat tinkoa da, testu bat plazaratzen da eta berarekin ibiltzen gara, harik eta burutik burura sortuak diren zalantza-malantza guztiak, izan litezkeen aukera guztiak eta hika-mika guztiak eztabaidatu eta ebatzi arte. Eskola ematen dihardugun bitartean, itzulgai hori baino ez dugu gogoan; itzulgai horren ertzak moztu, goi-beheak leundu eta egokitzen landutakoan, lanean erdiesten dugun testua ez beste bat sortarazten dugu, sarritan askozaz hobea, zalantzarik ez. Nire ustez, horrexek behar du helburu izan; nolahi ere, hori nahikoa artifiziala da, lanari bagagozkio. Beharrean dihardugunean, kasu, nekazaritzaren inguruko testu batean ari zarela, foru diputatu,

sailburu edo zinegotzi baten izendapena berehalaxe eta nahitaez egin behar dela eta (honez gero, konturatuko zinen, irakurle, Administrazioa itzultzaileetarik naizela), besteari utzi, etorri berri denari bat-bateko erantzuna eman, berriro ekin lehengo lanari eta horrela jarraitu etengabe, gurpilzoro antzo. Jakina, honelako behar-giroan ezin da ertzik moztu, sarritan horrelakorik ikusteke aurrera joan beharra dugu eta; ezin da aukera bat baino ikusi, erlojua gainean dugu eta; etab.

Kanpo praktikek, honenbestez, ikasleak benetako behar-giroa dakartzate, behartokian dauden arazo guztiez jabetu eragin eta eskola-giroko ikasbizieratik erauzi. Ikasleek egundoko alde ikusten dute batetik bestera; ordura arte ikusi eta ikasitako guztia unean-unean ezartzeko trebeziarik ez badaukate, eskoletan jasotako ezaguerek ezer gutxirako balioko dietela konturatuko dira; euren burua beste iharduera batera moldatu behar dute; zenbaitentzat gogorregi gertatzen da.

Hona, bada, kanpo praktiken eginkizunetarik behinena: tokian tokiko itzulpengintza eta eskolako bi direla jakinaraztea, eta azkenekoratu behar dutela ezer lortzekotan. Beharrean topatzen diren gaiak oso fiabarrak dira, elkarrekin ezetariko loturarik ez dutenak, erlojua berriz, agintzaile nagusi du ikasleak; bide batez esan dezadan, behar-giroa, zenbait tokitan, oso bihurria dela edozein ataza eta, bereziki, itzulpenak egiteko: zarata, bulegoko giroa, adiskide edo etsai giroa, etab. Guzti hauek eragin zuzena dute itzulkingean, burua hartaratu ezik, edozerk urten bailezake.

Gainera ez da beste alderdi bat ahaztu behar: oso ikasle bakan eta berezi batzuk ezik, kanpo praktiketara heltzen diren ikasle askok ordura arte ez du ezetariko eskarmenturik izan lanean; honenbestez, lana ez-ezik, bestelako giroa ezagutu beharra dute. Koktel zoragarri honetatik edatea egin beharra da, ikasleek benetako lana zelangoa den jakingo badute.

Guzti honekin batera, kanpo praktikek badute beste helburu bat: ikasleei ezagupidea eskaintzea etorkizunean izan dezaketen lanari begira. Azal dezadan hau sakonago. Ikasle asko masterra egitera heltzen denean, oso lotura arinak dauzka itzulpen-gintzako eragileekin. Itzulpengintzako eragileak aipatueran, itzultzaileak ez-ezik, itzulpen-enpresetako agintariak, Administrazioako karguak, etab., eman nahi ditut aditzera, zeren eta ez da ahaztu behar lanerako bideak zabaltzen dituztenak toki askotan daudela. Horrela, bada, masterreko eskoletara heltzen direnean lehenengo ezagupidea daukate, irakasleagoa osotzen duten kideak lanbidez itzultzaileak baitira gehienetan. Kanpo praktiketara heltzen direnean berriz, itzulpengintzako beste eragile batzuk ezagutuko dituzte, eta hori ez-ezik, euren burua ere ezagutzera ematen dute, eta hortik bizibidea ere erdietsi, beharbada.

## **2. Deustuko masterraren inguruko kanpo praktikak.**

Zelan gauzatu dira lehenengo atalean aipatu ditudan alderdi teorikoak Deustuko Masterraren inguruan antolatzen diren kanpo praktiketan?

Nire ezagupidearen aldetik, hau da, Bizkaiko Foru Aldundian praktiketan ihardun duten ikasleen aldetik, gauza oso onurakorra izan dela esan dezaket. Masterraren aurrerengo belaunaldiko ikasleentatik batek lanpostua lortu zuen Azpiegitura, S.A. enpresan, bertan hutsune bat gelditu zela eta. Zalantzarik ez dago, besteak beste, masterreko ikaslea izan zelako, jadisiti zuen lanpostu hura. Goian aipatu dudana ezagupideari esker. Bestetik, belaunaldi bereko beste ikasle batek itzulpen alorrean lanpostua lortu zuen salestarren elkartean. Beste batek Durangoko Udaletxean ihardun du hiru urtez bertako ordezkotza bat egiten. Beste batek lana topatu zuen argitaletxe batean itzulpen lanekin batera zuzenketa lanak egiteko. Emaítza guzti hauek lan iraunkorxeari dagozkionak dira. Badira beste zenbait lantzean behingo lanari dagozkionak, batez ere K2.000 enpresari

dagozkionak. Honek lanbidearen beste ikuspegi bat eskaini zien ikasleei: ohizko itzulpen lanaz ate, badaude beste ataza asko, gaur egun garrantzi izugarria izan eta irteera ona ematen dutenak, zelan diren egokitzapen lanak, pelikuletako itzulpenak, bikoizketak, sinkronizazioa, etab. Beharkuntza hauek eskolatan azal daitezke, baina ez dago benetako lana bezalakorik, gauza horiek ikasleei ezagutarazteko.

Bigarren belaunaldiko ikasleen artean ere lortu dira emaitza pozgarriak, horiek urriagoak badira ere. Bestetik ez dugu ahaztu behar bigarren belaunaldiko lehenengo ikasturteko ikasleak direla. Dena dela, Bizkaiko Foru Aldundian praktikak egin dituzten ikasle biek zelan edo halan errenta bihurtu dute euren praktikaldia. Bata Bizkaiko Foru Aldundian bertan gelditu da denboraldi laburrerako, bertako itzultzaile baten ordezkotza betetzeko; besteak berriz, itzulpenarekin harreman estuak dituen beste beharkuntza batean lortu du denboralditxo baterako lana, ume eta gazteentzako eskola-liburuak argitaratzen dituen argitaletxe batean, bertan itzulpenak ez-ezik, zuzenketa lanak ere egin behar dituelarik. Baliteke beste kasuren bat ere egotea, baina ez dut horren lekukotasunik.

Nire ustez, alderdi honetatik ezin esan daiteke Deustuko masterrak huts egin duenik. Dena dela, eta gauzak ganoraz egin nahi badira, Deustuko masterrak, bai eta Gasteizkoak ere, lan gogorra dute aurrerantzean. Ez dugu ahaztu behar, larrialdi ekonomiko sakonean bizi garela eta larrialdi ekonomikoa gogorren pairatzen duten arloetarik bat itzulpengintza dela.

### 3. Azken ondorioak.

Masterrari buruz orain artean idatzi diren artikuluko guztietan alderdi teorikoa baino landu ez denez, ikasleen ikuspegitik (ez euren larru baitan, hori ezinezkoa denez) masterrari errenta zelan atera dakiokkeen aztertu nahi izan dut.

Gizartean zabaldu den aburu bat ekarri nahi dut amaitzeko orrialde hauetara: *masterrak lanik ez duten ikasleen egongu*

*biburtu dira.* Zoritxarrez, hori zenbaitetan egia da. Eta egoera horri buelta eman nahi badiogu, ikasketak eta lanbidea uztartu behar dira, edo bederen, ahalik eta ahalegin berezienak egin, hori jadisteko.

Badakit, irakurle, beharbada, artikuluko honen helburua diruzaleegi begitanduko zitzaizula, baina gaur egun dugun bizimoduari begiratzuz gero, nekez hel diezaiokegu arlo honi, ekonomiaren alderdia alde batera lagata.

*Bilbaon, 1992.eko martxoaren 5ean.*

*Anjel Lobera Revilla*